

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

1/21 prozedura laburtuan epea jartzea

Vitoria-Gasteizko Udaleko langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 86. artikulutik 89.era bitartekoak aldatu zireneko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko maiatzaren 15eko akordioaren kontra Sindicato LAB - Langile Abertzaleen Batzordeak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa — 1/21 prozedura laburtua— izapidetzen ari delarik Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. Epaitegia, bederatzi eguneko epea jarri da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bere interesetarako komenigarritzat jotzen badute bertara ager daitezen, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 2an

Udal legelaria

LORETO ABAIGAR ECHEGOYEN